

JURDANA URIARTE LEJARRAGA andreak, Bermeoko Udaleko idazkari nagusiak,

ZIURTATU DOT:

2018ko martxoaren 14an **Osoko Bilkurak** erabagi hau agindu dauela:

Toki Erakundeen Antolakuntza Erregelamendu, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoaen Azaroaren 28ko 2568/1986 EDren arabera:

“Art. 82.

2. En el orden del día sólo pueden incluirse los asuntos que hayan sido previamente dictaminados, informados o sometidos a consulta de la Comisión Informativa que corresponda.
3. El Alcalde o Presidente, por razones de urgencia debidamente motivada, podrá incluir en el orden del día, a iniciativa propia o a propuesta de alguno de los portavoces, asuntos que no hayan sido previamente informados por la respectiva Comisión Informativa, pero en este supuesto no podrá adoptarse acuerdo alguno sobre estos asuntos sin que el Pleno ratifique su inclusión en el orden del día.

Art. 126.

1. Los dictámenes de las Comisiones Informativas tienen carácter preceptivo y no vinculante.
2. En supuestos de urgencia, el Pleno o la Comisión de Gobierno, podrá adoptar acuerdos sobre asuntos no dictaminados por la correspondiente Comisión Informativa, pero, en estos casos, del acuerdo adoptado deberá darse cuenta a la Comisión Informativa en la primera sesión que se celebre. A propuesta de cualquiera de los miembros de la Comisión Informativa, el asunto deberá ser incluido en el orden del día del siguiente Pleno con objeto de que éste delibere sobre la urgencia acordada, en ejercicio de sus atribuciones de control y fiscalización.”

Osoko Bilkura honek, AHO BATEZ, puntua gai zerrendan BERRESTEA erabagi dau.

3.- BERMEOKO UDALEKO HERRI-ARGITERIA INSTALAZINOEN ENERGIA-ZERBITZUAK, MANTENU ETA BERME OSOAGAZ, KONTRATUA ESLEITZEA.

Xedea

Bermeoko Udaleko Herri-Argiteria Instalazioen Energia-Zerbitzuak, Mantenu eta Berme Osoarekin kontratua esleitzea.



Aurrekariak

Lehenengoa: 2015eko apirilaren 28an, udal Osoko Bilkureak, ESE baten bidez herriko argiteria mantentzeko baldintza agiriak onartzea eta deialdia zabaltzea erabagi eban. Litzitazioaren iragarkia, 2015eko abenduaren 10eko Europako Aldizkarian argitaratu zan.

Bigarrena: Proposamenak aurkezteko epearen barruan, enpresa honeen eskaintzak jaso ziran: UTE Instalaciones eléctricas Scorpio, S.A. – Alisea Esco, SA; Imesapi, SA; Elsamex, SA; Valoriza Facilities, SAU; UTE Etra Norte – Etralux; Clece, SA; New Energy concept 2020, SL; Gamma Solutions, SL; Sociedad Ibérica de Construcciones Eléctricas, SA; Tecuni, Sa; Giroa, SA eta UTE FCC, SA – FCC Industrial – Soprener.

Hirugarrena: Behin kontratazino prozedura izapidetuta, Osoko Bilkureak, 2017ko uztailaren 20an izandako batzarrean, aurkeztutako proposamenetik onartu ziranak, lortutako puntuen arabera, modu honetan sailkatzea erabagi eban:

1. TECUNI, SA.
2. CLECE, SA.
3. UTE FCC, SA. – FCC INDUSTRIAL – SOPRENER.

Sailkapen horren arabera lehenengo geratu zan lehiatzailea, hau da, TECUNI, SA enpresea, esleipenerako proposatu zan. Esleipenerako proposatutakoari 10 eguneko epean, zenbait agiri aurkeztu, behin betiko fidantza ipini eta kontratuaren publizitate gastuak ordaintzeko errekerimendua egin jakon eta jakinarazo jakon beteko ez baleu, kontratazinoari uko egiten deutsola ulertuko dala.

Laugarrena: Behin errekerimendua beteta, esleipenaren onarpena egiteko ahalmena alkatearengan delegatzea eta, errekerimendua beteko ez balitz, zerrendako hurrengokoari esleipenerako proposatu eta esleipena egin orduko bete beharrekoak errekeritzeko ahalmena be alkatearengan delegatzea.

Bosgarrena: 2017ko irailaren 5eko 1089. zenbakidun Alkatetza Dekretuz Tecuni SA enpresari esleitzea onartu zan.



Seigarrena: Valoriza Facilities S.A.U.k KEAOaren aurrean esleipenaren aurkako errekurtsua ipini eban.

Zazpigarrena: Kontratuen Inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoak (OARC/KEAO), VALORIZA FACILITIES, S.A.U. enpresek egindako errekurtsuari buruz egindako bere 2017ko azaroaren 27ko 129/2017 ebazpenean ezarritako betez, 2018ko urtarrilaren 25ean, enpresa lizitatzailerei, behin-behineko bermea birjartzeko errekerimendua egin jaken.

Zortzigarrena: Emondako epea amaitu ondoren enpresa honeek bete dabe errekerimendua:

- Clece, S.A.
- Tecuni, S.A.
- UTE FCC, S.A. - FCC industrial e infraestructuras energéticas, S.A.U. - Soprener, S.L.

Errekerimenduan azaltzen zan moduan, eskatutakoa bete ez dabenez, beste enpresa guztiak lizitazio prozesutik kanpo geratzen dira.

Bederatzigarrena: 2018ko otsailaren 23an Zerbitzu Saileko kontratazio mahaiak erabagi proposamena egin eban.

Argudioak

Lehenengoa: Kontratazio espedientearen fase horren ganean, honakoa dino Sektore Publikoko Kontratuen 3/2011 Legeko Testu Bateratuaren 151. artikulua:

“Artículo 151. Clasificación de las ofertas, adjudicación del contrato y notificación de la adjudicación.

1. El órgano de contratación clasificará, por orden decreciente, las proposiciones presentadas y que no hayan sido declaradas desproporcionadas o anormales conforme a lo señalado en el artículo siguiente. Para realizar dicha clasificación, atenderá a los criterios de adjudicación señalados en el pliego o en el anuncio pudiendo solicitar para ello cuantos informes técnicos estime pertinentes. Cuando el único criterio a considerar sea el precio, se entenderá que la oferta económicamente más ventajosa es la que incorpora el precio más bajo.

2. El órgano de contratación requerirá al licitador que haya presentado la oferta económicamente más ventajosa para que, dentro del plazo de diez días hábiles, a contar



desde el siguiente a aquél en que hubiera recibido el requerimiento, presente la documentación justificativa de hallarse al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social o autorice al órgano de contratación para obtener de forma directa la acreditación de ello, de disponer efectivamente de los medios que se hubiese comprometido a dedicar o adscribir a la ejecución del contrato conforme al artículo 64.2, y de haber constituido la garantía definitiva que sea procedente. Los correspondientes certificados podrán ser expedidos por medios electrónicos, informáticos o telemáticos, salvo que se establezca otra cosa en los pliegos.

Las normas autonómicas de desarrollo de esta Ley podrán fijar un plazo mayor al previsto en este párrafo, sin que se exceda el de veinte días hábiles. De no cumplimentarse adecuadamente el requerimiento en el plazo señalado, se entenderá que el licitador ha retirado su oferta, procediéndose en ese caso a recabar la misma documentación al licitador siguiente, por el orden en que hayan quedado clasificadas las ofertas.

3. El órgano de contratación deberá adjudicar el contrato dentro de los cinco días hábiles siguientes a la recepción de la documentación (...)."

Bigarrena: Kontratuaren iraunaldia eta kopurua kontuan hartuta, 3/2011 Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 2. Xedapen gehigarriaren arabera, Kontratazio organoa Osoko Bilkurea litzateke.

Era berean Toki Erregimenaren Oinarrien Legearen 47.1. artikulua jarriki, onartutzat emoteko beharrezko gehiengoa, gehiengo soil da.

Erabagia

Osoko Bilkura honek, gehiengo osoaz, EH BILDU (7) eta EAJ-PNV (7)ren aldeko botoakaz eta GUZAN (2) eta IZARTU BERMEO (1)ren kontrakoakaz, honakoa ERABAGI DAU:

LEHENENGOA: Aurkeztutako proposamenetatik onartu diranak, lortutako puntuen arabera, modu honetan sailkatzea:

1. TECUNI, SA.
2. CLECE, SA.
3. UTE FCC, SA. – FCC INDUSTRIAL – SOPRENER.



BIGARRENA: Sailkapen horren arabera lehenengo geratu dan lehiatzailea, hau da, TECUNI, SA enpresea, esleipenerako proposatzea eta, ondorioz, 10 eguneko epean, honeek egin daizan errekeritza:

- Baldintza agirietako 13. klausulan adierazotako agiriak aurkeztea: ordainketak egunean izatearen Foru edo Estatuko Ogasunaren ziurtagiria; ordainketak egunean izatearen Gizarte Segurantzaren ziurtagiria; Jarduera Ekonomikoen ganeko zergaren azken erreziboa eta baja emon ez izanaren zinpeko aitorpena zergatik salbuetsita egongo balitz, salbuespen horren ziurtagiria-; kontratua betetzeko agindu dauzan baliabideak benetan kontratu honetarako ipinten dauzala kreditatzen dabezan agiriak; erantzukizun zibilaren poliza, baldintza agirietako 17. klausulan adierazotako ezaugarriekaz –gitxienez 500.000 euroko estalduraduna- .
- 154.367,36 euroko behin betiko fidantza ipintea.
- Kontratuaren publizitate gastuengaitik, 569,03 euro ordaintzea.

HIRUGARRENA: Enpresa esleipendunak proposatutako hobakuntza guztiak kontratuan jasotzea eta ohartarazotea, jakinarazpena lizitatzailer eta hautagaiei egin eta 15 laneguneko epea igarota kontratua sinatu beharko dala, hain zuzen be, errekurtsorik ez bada jarri hurrengo 5 eguneko epean.

LAUGARRENA: Esleipendunak aitaturako epean kontratua sinatuko ez baleu, kontratuari uko egiten deusola ulertuko da, eta sailkatutako hurrengoko enpresea proposatuko da esleipenerako.


BOSGARRENA: Alkatea ahalmentzea hurrengo izapideak bete daizan, besteak beste: errekerimenduak, hala badagokio; esleipena, gastua lotzea, formalizatzea, argitarapenak...etb.

SEIGARRENA: Hurrengo Informazio batzordeari erabagi honen barri emotea.



Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, ziurtagiri hau idazten dot, erabagia agertzen dan akta behin betiko onespeneren menpean dagoela ohartarazota (Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoa onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 EDaren 206. artikulua arabera), Idurre Bideguren Gabantxo alkate andrearen aginduz eta onetsiaz, Bermeon, 2018ko martxoaren 22an.

ONETSIA
ALKATEA



Idurre Bideguren Gabantxo



IDAZKARIA

Jurdana Uriarte Lejarraga

